

Giza enbrioaren asimetria lehen zatiketatik hasten dela frogatu dute

Egun bateko giza enbrio bat osatzen duten bi zelulek berdinak diruditen arren, frogatu dute giza gorputzaren gehiena haietako batetik sortzen dela.

Espermatozoideak obulua ernaltzen duenetik jarraipena egin diote zigotoari, eta, teknika ez-inbaditzaileak erabilita, zatiketa bakoitzean aztertu dute zer zati doan epiblastoa osatzera (gorputza), zer hipoblastora (zaku bitelinoa) eta zer trofoektodermora (karena).

Hala, frogatu dute epiblastoko zelula gehienak bi zelulako enbrioaren zelula bakar batetik sortzen direla. Ikertzaileen ustez, prozesu asimetriko hori gakoa da giza gorputza eratzeko. Beraz, asimetria hori hasieratik aintzat hartuz gero, litekeena da *in vitro* ernalkuntzaren arrakasta-tasa handitzea, orain arte ez baita kontuan hartu enbrioaren zelulak hain desberdinak direla hasieratik bertatik. ●



Enbrioia asimetrikoa dela frogatu dute, bi zelula baino ez dituenetik. ARG.: YVC Biologia Saila/CC BY.

SUV autoak dira karbono-emisioen hazkundearen % 20aren erantzuleak

[EIE Energiaren Nazioarteko Agentziaren arabera](#), autoen salmentan arrakasta berezia izan dute SUV motakoek. Horrek energia-kontsumoa eta karbono dioxidoaren isuriak areagotzea ekarri du: 2023an, petrolio-eskariaren eta isurien hazkundearen % 25a eta % 20a haiei zor zaie, hurrenez hurren.



SUV autoen erakusketa, Indonesian. ARG.: Tom Fisk/Pexels.

Horrez gain, elementu kritikoen beharrak ere piztu du kezka, SUV elektrikoek bateria oso handiak baituzte. Izatez, gaur egun errepideetan dabilzan SUV autoen % 5 baino ez da elektrikoa, baina, auto elektrikoaren artean, gero eta gehiago dira SUV motakoak.

EiEren txostenean azaldu dute autoak elektrifikatuta lortzen den karbono-isurien jaitsiera ezerezean uzten dutela SUV autoek, eta datu hau ere eman dute: SUV autoak herrialde bat balira, CO₂ gehien isurtzen duen bosgarrena izango litzateke, Txina, India, AEB eta Errusiaren ondotik. Hain zuzen, munduan dauden 360 milioi SUV autoek mila milioi tona CO₂ isuri zuten guztira; 2022an baino 100 milioi tona gehiago. ●



Albiste gehiago,
webgunean